
NEURE ANAITXO
YON AINGERU'RI
BERE EGUNEAN
Iñaki'K S.

# Miziolari txiki biak

Plazako mutil batek
Aingeru izena,
Kontu barregarri bat
nik dakit arena:
Zelan bein artu eban
asmoa zuzena
Txina'ra yoateko,
luraren azkena



Artu eban laguntzat
Ander mutikua,
biak egin ebien
papelez barkua,
bideako artuta
ogi ta ardaua
eta auzpo zar andi bat
putz egitekua.



Goiz batean goizetik
ordua eztakit zein
asi ziran auzpoaz
putz-ein eta putz-ein,
azkenean eutsien
barkuari erein,
Plaza'ko zubia be
igaro beñipein



Eldu zireanean
presape gañera
asi ziran begira
petrilitik bera,
ta bildurez beterik,
biotza ikera
artu eben bidia
Isidro'n etxera





San Isidro'n ondoan



San Isidro'n ondoan
Zubipea ilun;
baita gure mutilak
putz eiteko aztun,
Aingeruk esan eban:
"Ander, neure lagun,
"gaba eldu yaku ta
"lo bat egin daigun

Eldu zireanean
eguzkietara
Aingeru'k igon eban
palden gañera
andik begiratzeko
mundu zabalera
ia eldu zirean
Txina uriñera



Igaitu inguruan
diran ikazgiñak
arpegiz dira baltzak
zuriak agiñak;
loi loi euki a'ien be
esku eta oñak
garbitzen ba'dakiez
lapiko ondakiñak

Aingeruk ikazgiña
eukazan morotzat,
Onan esaten eban
goitik Anderentzat
"¡¡Ene!! zeinbat gizon ba
"ikusten yoazat;
"Txinan ozpagizak b
"Aprika'n bai, beintz




¡Ze uri andiak dagoz
itsaso luzean!
ibili ta ibili
gauez ta egunean,
ibili ta ibili
izerdi batean,
laister aurkitu ziran
ererorenean



Ixidro'n andaparan
mutilak bai pozik,
pastel baten aurrian
ez poz geyagorik;
asi ziran begira
giltzaren zulotik
ia ikusten eben
barruan txinorik
Gure mixiolariak
artu eben ura
kristiñau egiteko
Txinan zeinbat gura,
bateorako urak
botata burura,
onan yoan zeteza-
dan danak zerur.



Erota txikitxua
garua iyoten;
sagu erotariak
urune eralten;
iñuriak astoan
zoroak ekarten
Ixidro Olabariko
itxunda lo baten





Mutilak asi zran
loa bateatzen
buruwa ura bota ta
esanda: Aitiaren
Ixidro busti busi
lotik itxartu zen
ernegu andiegaz
gedariez asi zen

"Ume demonentruok
"okerrak benetan,
"laster asi zarie
"burleka txantxetan;
ta narrutik quatuta
biak alairetan
arin ipiñi zitun
tranbien axetan



Gure mixiolarriak
Plazan zîran laster.
Amak esan eutsien:
"Zabizie oker;
"Zuen bila gabiz
"or basterrik baster;
"Kapote eginda ortago
"bazkaltzeko ezer

Aingeruk esan eban:
"ez, Ama, asaratu;
"Txina'n egin doguz ba
"asko bakeatu,
"baña gizon txar batek
"gaitu arapatu
"eta gure nai gurez
"ona bildu gaitu



